


Bisita gidatua gaur Sagardoetxea barrutik ezagutzeko, igandeko herri galdeketari begira

Kronika - Erredakzioa 2022-02-03 00:00



Gaur arratsaldeko 18:00etan bisita gidatua egingo dute Sagardoetxean.

Arratsaldeko 18:00etan izango da bisita gidatua, eta parte hartzeko, aldezturik izena eman behar da: 943 550 575 telefonora deituta, edo 'info@sagardoetxea.eus' helbidera idatzita.

Igande honetan, Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzeko herri galdeketa egingo da Astigarragan. Eta horri begira, Sagardoetxea bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaini dute, bisita gidatuak antolatuta. Helburua da, «15 urtetako ibilbidea ezagutzera ematea, gaur egungo egoera eta jarduerazazaltzea, eta etorkizunera begirako erronkak partekatzea».

Horretarako, bi bisita gidatu prestatu ditu Astigarragako Udalak, eta lehenengoa urtarrilaren 29an egin zen. Bigarren bisita, aldiz, gaur bertan izango da, arratsaldeko 18:00etan hasita. Herritar guztientzat irekia da, baina hori bai, bisita gidatuetan parte hartzeko aldezturik izena eman beharko da. Horretarako, bi bide daude aukeran: 943 550 575 telefonora deitzea, edo info@sagardoetxea.eus helbide elektronikora idaztea.

Herri galdeketari buruzko panelak, gaur eta bihar

Bestalde, herri galdeketari buruzko informazio panelak ere jarriko dituzte kalean, eta bertan izango dira udal ordezkariak. Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara bitartean egongo dira ikusgai, Erriberan; eta bihar, berriz, arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara, Joseba Barandiaran plazan.

Igandean izango da herri galdeketa, eta goizeko 09:00etan hasita, arratsaldeko 20:00ak arte edukiko dute herritarrek bozka emateko aukera, Erriberan kokatuta egongo diren galdeketa mahaietan. Galdera honakoa da: *Ados zaude Sagardoetxearen etorkizuneko proposamenarekin?*

[Kultura Astigarraga](#)


Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.



Egin zaitez KronikaKide!



Erantzun ▼



Ikusienak



[Sekulako festarekin ospatu zuten mende erdia 1972koek!](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 26, 00:00 [Hernani](#)



[Horten maitea](#)

 Juanra Jodar
Arruiz ira 26, 00:00
[Hernani](#)



[Karabelgo Jaiak, larunbata](#)

[Iruditari](#)
Kronika - Erredakzioa
ira 24 [Hernani](#)



[Finalaurrekoetara pasea bideratu dute Agin Laburuk eta Nerea Elustondok, Getxon](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 26, 00:00 [Astigarraga Hernani](#)



[Ikastaroen behin betiko zerrendak, kiroldegian ikusgai](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 26, 00:00 [Hernani](#)



[Datorren igandean jokatu da Astigarragako Kros Herrikoia, eta gaurtik eman daiteke izena](#)

Kronika - Erredakzioa
ira 26, 00:00 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARRERMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)